

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GOBERNU IREKIAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua

Aldatzea Simone de Beauvoir, Rogelia de Álvaro eta Itziar Elkartearen Etxeetako aretoak eta armairutxoak 2024an eta 2025ean erabiltzeko baimenak

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko abenduaren 15eko erabakiaren bitartez ebatzi zuen Simone de Beauvoir, Rogelia de Álvaro eta Itziar Elkartearen Etxeetako udal aretoak egoitza gisa erabiltzen uzteko baimenak emateko eta armairutxoak esleitzeko deialdi publikoa. Erabakia 2023ko abenduaren 27ko ALHAOn (149. zenbakia) argitaratu zen.

Deialdi publiko honen oinarri arautzaileen 10. puntuan ezarritakoari jarraiki, eskatzaileak lortutako puntuazioaren arabera ordenatu ziren, eta hurrenkera hori erabili zen aretoak eta armairuak esleitzeko, horiek agortu arte. Gutxieneko puntuazioa lortuta ere, areto librerik ez egoteagatik lekurik gabe geratutako eskatzaileekin itxarote-zerrenda bat osatu zen, norgehiagokan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta.

Horiek horrela, Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Saileko Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak txosten teknikoa egin zuen 2025eko maiatzaren 13an, eta adierazi zuen aldaketak izan direla Tokiko Gobernu Batzarraren abenduaren 15eko erabakiaren bidez egindako esleipenean jasotakoan, eta, horrenbestez, esleipena aldatu egin behar dela. Zerbitzuak eranskin batean jaso ditu aldaketa horiek, eta proposamen honi erantsi zaio.

Aurrekoa ikusita, eta hainbat erabaki eta legeren ildotik –eskumenak eskuordetzeari buruzko 2023ko ekainaren 22ko erabakia, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 127.1.e) artikulua, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.1 artikulua eta udal aretoak baimentzeko deialdi publiko hau arautzen duten oinarrien 10. puntua–, Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen zinegotzi ordezkariak proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Aldatzea udal aretoak eta armairutxoak erabiltzeko baimena, zeina Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko abenduaren 15ean onetsi baitzuen, proposamen honen eranskinean ezarritakoaren arabera.

Bigarrena. Iragarki hau ALHAOn eta udalaren webgunean argitaratzea.

Egintza horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, aurkaratzen den egintza eman zuen organo beraren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik. Kasu horretan, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi-errekurtso berraztertze errekurtsoa espresuki edo ustez ebatzi arte. Ondoren, ebazpena

espresua bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da haren kontra bi hila-beteko epean, argitaratzen den egunetik aurrera; espresua ez bada, edozein unetan aurkeztu ahalko da errekurtsoa, dagokion arauekin bat administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria Gasteizen, 2025eko maiatzaren 30ean

Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etheen Sailaren Administrazio Zerbitzuko burua

JAVIER LÓPEZ MONTAÑA

ERANSKINA. ELKARTEEN ETXEETAKO ARETOAK ETA ARMAIRUAK ERABILTZEKO BAIMENETAKO ALDAKETAK

BAJAK

IFZ	ELKARTEA	ETXEA - ARETOA
G0128454	AMAPASE	ROGELIA DE ALVARO - A 0.2
G0127401	APREJUAL	SIMONE DE BEAUVOIR 4.3
G0158037	GOIZARGI EMAKUMEAK	SIMONE DE BEAUVOIR 4.1

ALTAK

IFZ	ELKARTEA	ETXEA - ARETOA
G01478163	KREALIA	ROGELIA DE ALVARO - A 0.2
G01234640	MUSICOS SOLIDARIOS SIN FRONTERAS	ROGELIA DE ALVARO - C 0.2
G01293513	RED DE MUJERES DEL MEDIO RURAL	SIMONE DE BEAUVOIR 4.1
G19869122	ADIM-EGIE	ITZIAR – 8. ARMAIRUTXOA

ALDAKETAK

IFZ	ELKARTEA	ETXEA - ARETOA
G10548436	AFRIKAKO DIASPORAKOEN PARTZUERGOA GAMBIA-EUSKADI	ROGELIA DE ALVARO - C 0.2 (lehen)
		ROGELIA DE ALVARO - A 0.3 (orain)